

IÑAKI ARRANZ

Deskribapena: Kike eta Iñaki Arranz kalean elkarrizketan ageri dira.

Kike: “Iñaki, duela urte batzuk idatzitako “Hitza azti” liburuan hamaika hitz jolas bildu zenituen. Nondik bildu zenituen? Eta zenbat daude hemen?”

Iñaki: “Hainbat hitz joko mota ezberdin daude hor, hizkuntzakin jolasteko moduan denak, e, nondik hartu? Ba, leku guztietatik, ba bai literaturatik, bai publizitatetik, lagunen arteko solasaldietatik eta bueno kontuan hartu behar da holako hitz jokoak ez direla hizkuntzaren hartzetan bilatu beharreko kontuak baizik eta gure hizkuntzaren beraren baitakoak direla eta hizkuntza presente dagoen eremu guztietan, hor, hitz jokoak aurkituko ditugula.”

Kike: “Eta horien artean, zeintzuk aukeratuko zenituzke? Edo adibide batzuk ematearren?”

Iñaki: “Esate baterako sorgin solasa deitzen dena, ez dakit ezagutzen duzun; sorgin solasa garai bateko umeek eta erabiltzen zuten helduek ez ulertzeko.”

Kike: “Hara!”

Iñaki: “Silabaka “p” letra gehitzen zuten hasieran, hau da, “etorri hona agudo” “EpeTOpoRRipi HOpoNApa ApaGUpuDOpo””

Kike: “Kontxo! Ba egia da, ez da ezertxo ere ulertzen, e!”

Iñaki: “Hori zen kontua.”

Kike: “Besterik?”

Iñaki: “Esate baterako, Lazkao Txikiren ateraldi bat: “Politikan ez dago gauza politikan”. Hau da hitz bat bi aldiz errepikatuta esaldi berean eta esanahi desberdinekin. Horri antanaklasia deitzen zaio baino izen horiek oso bitxiak dira eta...”

Kike: “Polittagoak dira adibideak izenak baino.”

Iñaki: “Hori da, hori, da. izen-abizenekin ere badago jolasteko joera nolabait. Badakizu euskaraz zein den Euskal Herriko emakumerik handienaren izena?”

Kike: “Ba ez dakit ba zein izan daitekeen!”

Iñaki: “Luzia Zabala!”

Kike: “Ona!”

Iñaki: “Ta holako pilo bat, hieroglifikoak, hitz gurutzatuak, akrostikoak...”

Kike: “Aizu Iñaki, liburuan begiratzten egon naiz eta zer dira lipogramak?”

Iñaki: “Bueno, lipograma batean, letra bat ezin duzu erabili eta horren kontrakoa monobokalismoa, hau da, bokal bakarra erabil dezakezu esan nahi duzuna esateko, “Arantxa alaba bakarra da, argala eta azkarra”. Klaro, hortik aurrera, ba, hor hasten dira komeriak, ez? Istorio bat kontatu nahi duzunean, “a” letra hartuta euskaraz, osatu daitekeen hitzik luzeena badakizu zein izan daitekeen? Madagaskartarragana. Pentsatu lagun bat duzula Madagaskarren jaioa eta harengana joaten zarela, norengana? Ba Madagaskartarragana.”

Kike: “Ba, hor bada, “a” letrarekin bakarrik egindako abesti bat, ezta?”

Iñaki: “Bai, Gose taldeak osatu zuen holako abesti bat hemen Araban euskara sustatzeko asmoarekin gainera.”

Kike: “Ba, ikus dezagun!”

Deskribapena: Abestiaren bideokliparen irudiak agertzen dira eta abestia bera entzuten da: “Añanan, Zabalgana, Landan ta Adanan, danak bla, bla, bla. Arana, Gamarra, Santa Barbara atara danak plazara. Araban bada maskarada, mahatsan mamaz algara. Ta hala bazan sartzan bada kalabazan. Lara, lara, lara, lara...Arana, Gamarra!! Lara, lara, lara, lara...”